



ZIENTZIA, UNIBERTSITATE ETA
BERRIKUNTZA SAILA

Zientzia eta Berrikuntzako Sailburuordetza
Zientzia Politikako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CIENCIA,
UNIVERSIDADES E INNOVACIÓN

Viceconsejería de Ciencia e Innovación
Dirección de Política Científica

EBAZPENA, Zientzia eta Berrikuntzako sailburuordearena, zeinaren bidez eteten baita euskal unibertsitate-sistemako ikerketa-taldeen jarduerak babesteko laguntzen deialdia (2026-2029) ebazteko gehieneko epea.

Sail honetan izapidetzen ari den administrazio-prozeduran, hau da, 2026-2029 urteetarako euskal unibertsitate-sistemako ikerketa-taldeen jarduerak bultzatzeko laguntzen deialdia egiten duen Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuaren 2025eko irailaren 2ko Aginduari buruzkoan (2025-09-19ko EHAA, 178. zk.), ebaluazio-txosten bat sartu behar da, zeina prozeduran sartzea nahitaezkoa eta erabakigarria baita hartu beharreko ebazpenaren edukiri buruzko irizpidea eratzeko, mota horretako administrazio-prozeduretan aplikatzekoa den araudian ezarritakoaren arabera.

Hori dela eta, txosten hori eskatu zaio UNIBASQ-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziari, eman eta bidal zezan, dagokion administrazio-espeditentean sartzeko.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22. artikuluan ezarritakoaren arabera, prozedura ebazteko eta ebazpena jakinarazteko legezko gehieneko epea eten ahal izango da administrazio bereko edo beste bateko organo bati nahitaezko txostenak eskatzen zaizkionean, eskatutako nahitaezko txosten erabakigarria eskatzen denetik jasotzen den arte, gehienez ere hiru hilabeteko epean.

Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

LEHENENGOA.- Espedienteari dagokion administrazio-prozedura ebazteko gehieneko epearen zenbaketa etetea (Agindua, 2025eko irailaren 2koa, 178. EHAA (2025/09/19), Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuarena, 2026-2029rako euskal unibertsitate-sistemako ikerketa-taldeen jarduerak babesteko laguntzetarako deialdia egiten duena, sail honek izapidetzen duena), harik eta hartu beharreko ebazpenaren edukia zehazten duen nahitaezko txostena jaso eta erantsi arte. Txosten hori Zientzia eta Berrikuntzako sailburuordeak eman beharko du. Txosten hori jaso ondoren, erakunde eskatzaileei jakinaraziko zaie.

Era berean, jakinarazten da erabakitako etendura ez dela inola ere hiru hilabetetik gorakoa izango, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22.1 d) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.



**ZIENTZIA, UNIBERTSITATE ETA
BERRIKUNTZA SAILA**

Zientzia eta Berrikuntzako Sailburuordea
Zientzia Politikako Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE CIENCIA,
UNIVERSIDADES E INNOVACIÓN**

Viceconsejería de Ciencia e Innovación
Dirección de Política Científica

BIGARRENA.- Erabaki hau interesdunei jakinaraztea, eta ohartaraztea etendurak azken ebazpena eman eta jakinarazteko epearen zenbaketari soilik eragiten diola.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko apirilaren 9an.



**ZIENTZIA, UNIBERTSITATE
ETA BERRIKUNTZA SAILA**
**DEPARTAMENTO DE CIENCIA,
UNIVERSIDADES E INNOVACIÓN**

ADOLFO MORAIS EZQUERRO
ZIENTZIA ETA BERRIKUNTZAKO SAILBURUORDEA